KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko abendua

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. Kanpo merkataritza

5. Enpresarien konfiantza

6. ELGEren aurreikuspenak

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. ABEEak paper garrantzitsua jokatzen ari dira kutsatzeen bigarren olatuan.

Beraiek gabe, Gizarte Segurantzako afiliazioa %5,2 jaitsiko zen azaroan.

2. Langabezia erregistratuaren hazkunde erritmoa berriro leundu da.

Azaroko urte arteko tasa apiriletik jaso den txikiena da.

3. Presio deflazionistak gora egin du urrian.

KPI indizea urte arteko tasa negatibotan egon da azken zazpi hilekotan.

4. Energiaz bestelako esportazioak suspertzen hasi dira.

Hala ere, energiako produktuen salmenta 2019koa baino txikiagoa da.

5. Kutsatzeen bigarren olatuak faktura pasatu die Europako enpresei.

PMI indizeek okerrera egin dute, bereziki zerbitzuen arloko-ek.

6. Ekonomia azkar suspertuko delako igurikimenak?

ELGEk uste du txertoek erraztuko dutela ekonomiaren sus-perraldia.

7. Hilabeteko laburpena.

Ziurgabetasunaren eta itxaropenaren artean.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

ABEEak paper garrantzitsua jokatzen ari dira kutsatzeen bigarren olatuan

Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,1eko urte arteko beherakada izan zuen azaroan, urriko kopuruaren oso antzekoa (-%2,0), eta pentsa daiteke kutsatzeen bigarren olatua lan merkatuan izaten ari den eragina hutsala dela. Baina hori ez da horrela. Gogoratu behar da aldi baterako laneko erregulazio espediente batean dauden pertsonek Gizarte Segurantzan afiliatuta jarraitzen dutela, hilabete horretan lanik egin ez badute ere. Horregatik, garrantzitsua da afiliazioko datuak aztertzea aldi baterako laneko espediente batean dauden pertsonak kenduta. Horrela ikusita, urte arteko jaitsiera %5,2 izan zen, urrikoa (-%4,3) baino ia puntu bat negatiboagoa. Zehazkiago adierazita, ABEE batean 21.400 pertsona zeuden urrian eta 31.100, berriz, azaroan. Azken kopuru horretatik, 16.200 emakumeak ziren eta 14.900 gizonak, eta urte arteko aldakuntza tasak antzekoak izan ziren (emakumeen kasuan -%5,2 eta gizonen kasuan, berriz, –%5,4).

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA
Urte arteko aldakuntza tasa

AZAROKO AFILIAZIOA

-%2,1



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA (ABEERIK GABE)
Urte arteko aldakuntza tasa

AZAROKO AFILIAZIOA

-%5,2



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA. EMAKUMEAK (ABEERIK GABE).
Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA. GIZONAK (ABEERIK GABE).
Urte arteko aldakuntza tasa



Jarduera adarren araberako afiliazioaren azterketak erakusten du beherakada nagusiak manufakturen industrietan eta ostalaritzan gertatu direla, azken urtebetean biek 6.500 afiliazio baino gehiago galdu dituztelako. *Beste zerbitzuak* izenekoan eta jarduera artistikoetan ere beherakada handiak jaso dira.

Aitzitik, afiliazioak nabarmen egin du gora osasun alorreko jardueretan, 3.100 afiliazio berri baino gehiago bildu dituelako. Beste lau jarduera adarretan ere handitu egin da afiliazioen kopurua, baina kasu guztietan oso kopuru txikiak izan dira eta ez dira 100 afiliaziora iristen.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

	2019ko azaroa	2020ko azaroa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	979.910	959.181	-20.729
Industria manufakturagileak	176.319	169.646	-6.673
Merkataritza	138.094	135.229	-2.865
Osasun arloko jarduerak	106.217	109.347	3.130
Hezkuntza	76.052	75.580	-472
Administrazio jarduerak	67.042	66.835	-207
Ostalaritza	68.511	61.963	-6.548
Eraikuntza	57.708	57.056	-652
Lanbide jarduerak	57.390	56.879	-511
Administrazio publikoa	48.300	48.166	-135
Garraioa	42.912	42.265	-647
Etxeko langileak	29.749	28.824	-925
Bestelako zerbitzuak	28.414	26.140	-2.274
Informazioa eta komunikazioa	23.348	23.416	68
Finantza jarduerak	17.806	17.354	-452
Jarduera artistikoak	17.301	15.721	-1.580
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.148	12.168	20
Ur horniketa	6.251	6.267	17
Higiezinen jarduerak	4.122	4.137	15
Energia horniketa	1.598	1.576	-22
Erauzketa industriak	570	554	-16
Lurraldez kanpoko erakundeak	59	58	-1

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia erregistratuaren hazkunde erritmoa berriro leundu da

Lanbidek argitaratu berri dituen datuen arabera, azaroan langabeen kopurua %16,4 igo zen. Beraz, 18.659 langabe gehiago zenbatu dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, aurtengo erdiko hilabeteekin alderatuta, hazkunde erritmoa moteltzen joan da nabarmen, zeren eta osasun krisiaren ondoriozko geldialdi ekonomikoak lan merkatuan izan duen eragina azken hilekoetan hasi baitzen zuzentzen. Beste behin ere, langabeziak gizonen artean izan zuen gorakada (%20,2) emakumeen artean bizitakoa (%13,5) baino handiagoa izan zen. Tasa horien artean dagoen aldea azaltzeko, kontuan hartu behar da osasun alorreko jarduerak direla enplegua sortzen ari diren ia bakarrak, eta adar horretan emakume askok lan egiten duela.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. AZAROA

%16,4



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK



LANGABEZIA . GAZTEAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK
Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreko hilabeteekin alderatuta, oro har, sektore guztietan igo zen langabezia gutxiago, eta, beste behin ere, eraikuntzaren sektorearen bilakaera nabarmendu behar da, urte arteko aldakuntza tasa %8,7 bakarrik izan baitzen, pandemiak iraun zuen bitartean jarduera ia eten behar izan ez zuelako. Bien bitartean, industriaren eta zerbitzuen sektoreek %14,4ko eta %17,3ko igoerak izan zituzten, hurrenez hurren, eta beheranzko joerarekin jarraitu bazuten ere, oraindik eraikuntzatik urrun zeuden erregistroak markatu zituzten. Horiek horrela izanda, zerbitzuen sektorea izan zen langabeziaren gorakada nabarmenena erakutsi zuena, 13.139 langabe gehiago egon baitziren 2019ko azaroarekin alderatuta, ostalaritzan eta mugikortasunari dagokionez duela gutxi hartutako murrizketek eragin oso negatiboa izan dutelako zerbitzuetan.

LANGABEAK

	2019ko azaroa	2020ko azaroa	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	**113.777**	**132.436**	**18.659**
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.655	21.970	3.315
Bizkaia	65.108	75.252	10.144
Gipuzkoa	30.014	35.214	5.200
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	49.397	59.381	9.984
Emakumeak	64.380	73.055	8.675
25 urtetik beherakoak	8.357	11.914	3.557
25 urte baino gehiago dutenak	105.420	120.522	15.102
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.521	2.814	293
Industria	13.379	15.300	1.921
Eraikuntza	7.908	8.594	686
Zerbitzuak	75.904	89.043	13.139
Lehenago lan egin dutenak	99.712	115.751	16.039
Lehenago lan egin ez dutenak	14.065	16.685	2.620
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.344	22.467	4.123

Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

Presio deflazionistak gora egin du urrian

KPI INDIZE OROKORRA
Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazio tasa -%0,5era jaitsi zen urrian, hots, irailean baino hiru hamarren beherago, argindarraren merkatzeak eraginda. Murrizketa horrekin, urte arteko KPIak amaiera eman zion bi hilabeteko igoerari eta zazpigarren tasa negatiboa jaso zuen urtea hasi zenetik. Halaber, urte amaieran inflazio negatiboa egon zitekeela aurreikusten da.

KPIAREN BANAKETA
Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,5	-0,5
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,5	0,4
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,1	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,5	0,2
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-4,6	-0,9
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	4,2	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-10,7	-1,2

AZPIKO INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko

Adierazi berri den bezala, INEren estatistika erakundeak argindarraren prezioaren beherakadari egotzi zion batez ere urte arteko KPIaren jaitsiera. Hori horrela izanda, etxerako hornidura horren tarifak hilabete honetako prezioen beheranzko bilakaeraren eragile nagusiak direnez, etxebizitza taldeak nabarmen beheratu zuen inflazio globala, bere tasa 2,3 puntu murriztu zuelako, iraileko –%0,9tik urriko –%3,2ra igaro baitzen. Era berean, prezioen beherakadari ekarpen handiena egin zion beste taldea komunikazioak izan ziren, urte arteko tasa –%4,1era murriztu baitzuten. Neurri handi batean, telefonia paketeek behera egin zutelako gertatu zen hori, iaz ia aldaketarik gabe mantendu baitziren. Paradoxikoki, prezioak igo zituzten talde bakarrak koronabirusak gehien zigortu dituenak izan ziren: aisialdia eta kultura, eta ostalaritza. Lehenengoetan, udako denboraldi oso negatiboa amaitu ondoren, pakete turistikoen partidak iaz baino gutxiago egin zuen behera, eta bigarrenek goranzko joerarekin jarraitu zuten.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko urria

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	**-0,5**	**-0,8**	**-0,3**
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,5	2,3	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,1	0,5	3,3
Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,0	-0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,2	-3,6	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,2	0,3	0,1
Osasuna	0,4	0,3	0,3
Garraioa	-5,0	-5,1	-3,5
Komunikazioak	-4,1	-4,2	-3,0
Aisia eta kultura	-1,3	-0,7	0,0
Hezkuntza	0,2	-0,2	-0,1
Jatetxeak eta hotelak	1,5	0,3	0,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,0	1,4	1,4

Iturria: INE , Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Energiaz bestelako esportazioak suspertzen hasi dira

ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK.
Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK. IRAILA

-%0,5

EAEk atzerriarekin egiten duen ondasunen merkataritzak suspertzeko sintomak erakutsi zituen, koronabirusak eragindako krisi ekonomiko sakonaren ostean. Hala islatzen dute Eustatek argitaratutako iraileko datuek, non salmenta ez-energetikoen beherakada %0,5era mugatu zen, apirilean izandako %50,0 inguruko beherakadatik urrun. Esportazio guztiek, bestalde, uzkurdura handia izan zuten (-%8,2), energia salmentaren bilakaera kaskarrak baldintzatuta (-%68,9).

Era berean, iraileko datuak urteko lehen bederatzi hilabeteetako bilakaera argia ematen digu. Urte arteko tasetan neurtuta uzkurtze handia izan arren (-%17,1), esportazio ez-energetikoen bilakaera azken 15 urteetako batez bestekoaren gainetik dago eta orain arteko zortzigarren zenbatekorik handiena da.

Hala eta guztiz ere, susperraldia zalantzazkoa da oraindik, eta pandemiak eragindako murrizketek kaltetu dezakete.

ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK.
Milioi euro



ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK. URTARRILETIK IRAILERA

15.156,5

Esportazioak helmugaren arabera. Iraila



Esportazioen banaketa. Iraila



27 kidez osatutako Europar Batasuna izan zen EAEko esportazioen helmuga nagusia, eta esportatutako guztizkoaren %64,6 bereganatu zuen. Eremua osatzen duten herrialdeen artean, Alemaniara (%14,5) eta Portugalera (%0,1) zuzendutako salmentek soilik lortu zituzten igoera positiboak. Esportazio adar nagusiei dagokienez, garraio materialaren salmentak izan duen gorakada nabarmendu behar da, zehazki, ibilgailu automobilena; izan ere, gainerako epigrafeen beherakada orokorraren aldean, %9,9 igo da.

Laburbilduz, iraileko esportazio ez-energetikoak 1.883,7 milioi eurokoak izan ziren, eta inportazio ez-energetikoak 1.040,8 milioi eurokoak. Zenbaki horien ondorioz, iraileko saldo ez-energetikoa superabitarioa izan zen eta 842,8 milioi euroetara iritsi zen. Horri esker, kanpo merkataritzaren estaldura tasa %181,0 izan zen, azken sei urteetako handiena.

Inportazio ez energetikoak.
Urte arteko aldakuntza tasa



Saldo ez energetikoak.
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

ENPRESARIEN KONFIANTZA

Kutsatzeen bigarren olatuak faktura pasatu die Europako enpresei

Europako enpresen iritziak baikortasuna berreskuratzen ari ziren, martxoko eta apirileko beherakada handien ondoren. Izan ere, uztailean, indize konposatua hedapen ekonomikoko eremuan zegoen jada (50eko balioaren gainetik). Hala eta guztiz ere, kutsatzeen bigarren olatuaren hedapenak eta berau kontrolatzeko hartu diren neurriek baikortasuna hoztu dute.

Zehazkiago adierazita, azaroko datua 45,1ean kokatu da, urriko datua baino ia bost puntu beherago eta atzeraldia iragartzen duen eremuan. Bi osagaiek kontrako bilakaera erakutsi dute. Hala, manufakturen indizeak dinamismo esanguratsua adierazten du oraindik (53,6), baina zerbitzuak hazkunde balioetatik urrundu dira eta 41,3ko datua jaso dute.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2020KO AZAROA

45,1



MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI konposatua. Alemania



PMI konposatua. Frantzia



Europan, Alemaniak erakusten duen indarrak (52,0) kontrastea egiten du Frantziaren zailtasunekin (39,9), ekonomia honek zerbitzuen osagai handiagoa baitu. Erresuma Batuak ere okerrera egin zuen nabarmen azaroan (47,4).

Europatik kanpo, nabarmentzekoa da AEBetako ekonomiaren datu ona, 57,9ko balioa baitu, azken 68 hilabeteetako altuena delarik. Hobekuntza horren arrazoien artean, koronabirusaren aurkako txerto eraginkorra lortzeko aurrerapausoak eta herrialdeko hauteskunde prozesuan sortutako ziurgabetasunaren amaiera daude. Azkenik, Japonian ez dago okertze handirik, baina hazkunde positiboko tasa bat lortu gabe jarraitzen du.

PMI konposatua. Japonia



PMI konposatua. AEB



PMI konposatua. Erresuma Batua



Iturria: Markit.

ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Ekonomia azkar suspertuko delako igurikimenak?

MUNDUKO BPGA
Urte arteko aldakuntza tasa



ELGEk, abenduan argitaratu duen Perspektiba Ekonomikoen txostenean, COVID-19aren aurkako txertoen eragina sartu du bere eszenategi ekonomikoan. 2021ean zehar, orokorrean munduko biztanleen eskura hainbat txerto jartzeko aukerak susperraldi azkarraren itxaropena piztu du.

2020ko azken hilabeteetan, COVID-19ak eragindako infekzioen bigarren olatuak eragin negatiboa izango du munduko ekonomian, eta 2020an, batez beste, %4,2ko jaitsiera jasoko du.

Eszenategi horretan, ziurgabetasuna handia da oraindik, eta txertoen banaketari eta eraginkortasunari zuzenean lotuta dago.

ELGEREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Munduko ekonomia	**2,6**	**-4,2**	**4,2**	**+0,3**	**-0,8**
AEB	2,2	-3,7	3,2	+0,1	-0,8
Eurogunea	1,3	-7,5	3,6	+0,4	-1,5
Alemania	0,6	-5,5	2,8	-0,1	-1,8
Frantzia	1,5	-9,1	6,0	+0,4	+0,2
Italia	0,3	-9,1	4,3	+1,4	-1,1
Erresuma Batua	1,5	-11,2	4,2	-1,1	-3,4
Kanada	1,7	-5,4	3,5	+0,4	-0,5
Japonia	0,7	-5,3	2,3	+0,5	+0,8
Txina	6,1	1,8	8,0	=	=
India	4,2	-9,9	7,9	+0,2	-2,8
Brasil	1,1	-6,0	2,6	+0,5	-1,0

AEB-etako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



2021eko lehen seihilekoan, ziurrenik, jarduera ekonomikoak mugatuta jarraituko du, eta gizarte urruntzeak eta mugikortasunaren mugek ere bere horretan jarraituko dute. Kalkuluen arabera, munduko ekonomia pixkanaka suspertuko da urte horretan txertoak eskualde guztietan aplikatzen diren heinean. Orduan, munduko BPG %4,2 handituko da, batez beste.

ELGEk dio susperraldia ezberdina izango dela herrialdeen eta sektoreen artean, eta desberdintasun horiek kroniko bihur daitezkeela. Erakundeak behin eta berriz esaten du baliabideak erabili behar direla desberdintasun horiek minimizatzen saiatzeko. Halaber, osasun publikoko zerbitzuak indartzera bideratutako ekintza publikoak gomendatzen ditu, bai eta herritar kalteberei eta enpresei laguntzea ere, batez ere, krisi sanitario eta ekonomikoak gehien kaltetu dituenei.

Txinako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.

HILABETEKO LABURPENA

Ziurgabetasunaren eta itxaropenaren artean

Azaroa igaro da COVID-19aren kutsatzeen bigarren olatuak sortzen duen ziurgabetasunaren eta eraginkortasun handiko hainbat txertoren berehalakotasunak ekarri duen itxaropenaren artean. Hala jaso da aurreratutako adierazleetan eta erakunde batzuen aurreikuspenen eguneratzean. Zehazkiago adierazita, **azaroko PMI indizeek nabarmen egin dute okerrera euroaren eremuan, indize konposatua 50,0 izatetik (urrian) 45,1 izatera (azaroan) igaro baita**. Manufakturek (55,5) ondo eusten diote une ekonomikoari, baina zerbitzuek (41,3) pandemia geldiarazteko zailtasunak eta hartutako neurrien eragina islatzen dituzte. Frantzia da gehien kezkatzen duten herrialdeetako bat, 39,9ra jaitsi baita bere indize konposatua. Bestalde, Espainian 50eko mailatik behera daude bai zerbitzuak bai manufakturak.

Antzera mugitu da Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoaren indizea: azaroan, bere batez besteko historikotik (100) urrundu zen, eta eurogunearen balioa 87,6 izan zen. **Okertzeko joera orokorra da, bai herrialdeka bai inkestan aztertutako atalka aztertuta.** Espainiaren kasuan, atal guztiek eman dute atzerapausoa, batez ere txikizkako merkataritzak. Gainera, enpleguari buruzko igurikimenek bost puntu galdu dituzte hilabete bakar batean. Dena den, Erresuma Batua eta Italia dira emaitzarik txarrenak jaso dituzten herrialdeak.

Testuinguru horretan, ELGEk eguneratu egin ditu munduko ekonomiarako bere aurreikuspen ekonomikoak eta %4,2ko jaitsieran kokatu du aurtengo emaitza, eta tasa berean, baina positiboan, hurrengo urterako gehikuntza. Horrek esan nahi du 2020rako berrikusketa txiki bat (hiru hamarren) egin duela gorantz, nahiz eta hurrengo urterako tasa nabarmen murriztu duen (zortzi hamarren). **Erakunde horren arabera, laster iritsiko diren txertoak dira susperraldi ekonomiko azkarra lortzeko arrazoi nagusia**. Era berean, osasun zerbitzuak eta neurri inklusiboak indartzea gomendatu du, eta espero du ekonomia globalak pandemiaren aurreko maila berreskuratzea 2021aren amaieran.

EAEko ekonomiari dagokionez, **kutsatzeen bigarren olatuaren hedatzea nabaritzen hasi da lan merkatuko datuetan,** batez ere Gizarte Segurantzako afiliazioan. Izan ere, azaroko urte arteko aldakuntza tasa (-%2,1) ez da askorik urrundu aurreko hilekoan eskuratu zen emaitzatik (-%2,0), baina afiliazio guztietatik aldi baterako lan erregulazioko espediente baten eraginpean dauden pertsonak deskontatzen badira, bilakaera nabarmen okerragoa da, urritik azarora -%4,3tik -%5,2ra areagotu baita jaitsiera. Horrek esan nahi du langabezia erregistratuak gora egin duela berriro urte arteko tasan, kasu honetan %16,4, oso tasa altua, baina apiriletik aurrera erregistratutakoak baino txikiagoa. Era berean, kontratazioa ez da nahikoa oraindik, baina hilez hileko bilakaerak erakusten du jaitsiera erritmoa leundu egin dela.

Azkenik, igurikimenei lotutako informazio batzuek itxaropenera bultzatzen gaituzte. Industria Ministerioaren datuekin eraikitzen den **industria giroaren indizeak urteko daturik altuenak erregistratu zituen urrian eta azaroan,** udaberriko eta udako balioetatik urrun, eskaera zorroaren egoera hobeari esker eta enpleguari buruzko igurikimen onei esker.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG	3,1	2,2	2,1	2,2	-3,2	-19,5	-7,5
Barneko azken kontsumoa	2,6	1,9	1,8	1,6	-3,0	-15,4	-5,9
Familien kontsumoa	3,0	1,8	1,6	1,5	-4,8	-20,3	-8,5
Administrazioaren kontsumoa	1,2	2,2	2,4	2,3	4,1	3,0	3,6
Kapital eraketa gordina	4,9	3,3	2,7	2,7	-3,6	-23,0	-11,4
Barne eskaria	3,2	2,2	2,0	1,9	-3,1	-17,2	-7,2
Esportazioak	2,7	0,4	-0,6	1,4	-7,5	-30,1	-15,5
Inportazioak	2,8	0,4	-0,6	1,0	-7,2	-26,4	-14,8
Lehen arloa	1,7	3,2	2,8	5,9	3,5	-6,1	-7,2
Industria eta energia	2,0	1,3	1,2	2,2	-3,6	-26,7	-9,5
Eraikuntza	4,0	3,4	3,2	2,1	-2,7	-17,9	-9,3
Zerbitzuak	3,1	2,5	2,4	2,1	-2,8	-17,5	-6,5
Balio erantsi gordina	2,9	2,3	2,1	2,2	-3,0	-19,6	-7,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,2	1,8	2,3	-5,1	-18,4	-8,5
Enplegua	2,3	1,5	1,5	1,2	-2,8	-17,2	-6,2

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020		2020	2021				2021
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	-11,9	-5,8	-10,1	0,6	21,6	11,4	4,3	8,9
Barneko azken kontsumoa	-8,9	-4,3	-7,9	0,6	17,5	8,8	3,8	7,4
Familien kontsumoa	-12,0	-6,1	-10,8	0,3	22,6	10,8	4,2	8,9
Administrazioaren kontsumoa	2,9	2.5	3,1	1,0	1,6	1,5	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	-14,5	-6,0	-11,7	0,0	24,9	12,9	2,8	9,3
Barne eskariaren ekarpena	-10,9	-5,0	-9,3	0,5	20,3	10,4	3,8	8,2
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,0	-0,8	-0,8	0,1	1,3	1,0	0,5	0,7
Lehen arloa	-7,7	-8,5	-4,8	1,6	11,8	8,8	10,3	8,0
Industria	-16,9	-8,7	-14,0	-2,1	28,9	14,9	4,9	10,5
Eraikuntza	-10,1	-7,5	-9,6	0,5	19,3	8,1	6,3	8,2
Zerbitzuak	-10,4	-5,1	-9,0	1,0	19,9	10,5	4,3	8,5
Balio erantsi gordina	-11,9	-6,2	-10,2	0,3	21,8	11,4	4,6	8,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,5	-2,4	-9,4	3,3	20,2	11,8	1,7	8,8
Lanaldi osoko lanpostuak	-9,2	-6,3	-8,9	-1,1	18,2	8,6	5,9	7,9
Landunak (BJA)	-5,5	-4,0	-3,2	-3,0	2,4	3,8	3,6	1,7

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
Hispalink (BEGren aldak.)	-10,6	5,7	CEPREDE	-9,7	8,6
BBVA	-10,5	5,8	Afi	-7,5	—
Laboral Kutxa	-10,5 ≤BPG ≤ -10,0	< 7,0			

ESTATISTIKA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,4	2,0	1,8	1,7	-4,2	-21,5	-8,7
Kontsumo pribatua	1,8	0,9	1,1	1,0	-6,2	-25,2	.10,4
Kontsumo publikoa	2,6	2,3	2,2	2,6	3,7	3,1	3,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,1	2,7	2,8	0,9	-5,1	-25,8	-11,9
- Aktibo finko materialak	7,6	2,7	2,6	0,1	-6,9	-29,7	-13,4
- Eraikuntzan	9,3	1,6	0,9	-2,2	-7,0	-27,7	-15,2
- Ekipamendu ondasunetan	5,4	4,4	5,4	3,6	-7,3	-34,2	-11,4
- Jabetza intelektualaren produktuak	-0,7	2,6	3,7	5,0	4,5	-5,8	-4,6
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	1,4	1,5	1,0	-3,9	-18,8	-7,8
Esportazioak	2,3	2,3	2,7	2,1	-5,6	-38,1	-17,0
Inportazioak	4,2	0,7	2,0	0,3	-5,4	-33,5	-15,7

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-11,7	6,4	IEE	-12,0	6,0
Axesor	-11,8	6,6	Intermoney	-11,5	5,6
BBVA	-11,5	6,0	Mapfre Economics	-11,8	6,7
Bankia	-13,0	6,0	Repsol	-11,0	6,8
CaixaBank	-11,4	6,0	Santander	-11,3	7,0
Cámara de Comercio España	-13,0	8,6	Ygroup Companies	-12,0	5,0
Cemex	-12,0	5,5	Universidad Loyola Andalucía	-11,3	5,0
CEEM-URJC	-11,6	8,3	Consenso (media)	-11,8	6,5
CEPREDE-UAM	-10,8	8,7	Gobierno (2020-10)	-11,2	7,2/9,8
CEOE	-11,5	7,0	Banco España (2020-09)	-10,5/-12,6	7,3/4,1
Equipo Económico (Ee)	-12,0	6,8	Comisión Europea (2020-11)	-12,4	5,4
FUNCAS	-12,0	6,7	FMI (2020-10)	-12,8	7,2
ICAE-UCM	-12,0	6,0	Consensus Forecast (2020-11)	-12,1	5,9

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizacines Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
AEB	3,0	2,2	2,1	2,3	0,3	-9,0	-2,9
Txina	6,6	6,1	6,0	6,0	-6,8	3,2	4,9
Japonia	0,3	0,7	1,7	-0,7	-1,9	-10,3	-5,9
Kanada	2,0	1,7	1,9	1,7	-0,3	-12,5	-5,2
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,7	1,2	-2,7	-13,9	-4,3
Eurogunea	1,8	1,3	1,4	1,0	-3,3	-14,8	-4,4
Alemania	1,3	0,6	0,8	0,4	-2,1	-11,2	-4,0
Frantzia	1,8	1,5	1,6	0,8	-5,7	-18,9	-3,9
Erresuma Batua	1,3	1,3	1,0	1,0	-2,1	-21,5	-9,6
Italia	0,9	0,3	0,5	0,1	-5,6	-18,0	-5,0
Herbehereak	2,4	1,7	1,6	1,7	-0,4	-9,2	-2,5

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020KO AZAROA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-3,7	3,8	1,2	2,0	8,2	6,4
Japonia	-5,5	2,5	0,0	0,0	2,8	3,1
Kanada	-5,7	4,8	0,7	1,6	9,5	7,8
Europar Batasuna	-7,3	4,5	0,5	1,1	—	—
Eurogunea	-7,3	4,7	0,3	0,9	8,1	9,4
Alemania	-5,5	3,8	0,5	1,5	6,0	6,1
Frantzia	-9,5	5,9	0,5	0,8	8,6	10,1
Erresuma Batua	-11,0	4,7	0,9	1,5	5,1	7,3
Italia	-9,1	4,8	-0,1	0,4	9,6	11,3
Espainia	-12,1	5,9	-0,3	0,7	—	—
Herbehereak	-5,0	2,9	1,2	1,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.